

HORNIDURA ELEKTRIKOA KARGATZEKO INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA:

Uztailaren 5eko, 11/1989, Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arau Erregulatzaileraren 47.2 artikulua dioenez, bidezko gizarte, ongintza, kultur edo herri onurako arrazoiak daudenean, Udalak prezio publikoak ezarri ahal izango ditu, emandako zerbitzuaren edo egindako jardueraren kostua, gutxienez, estaltzeko aukerarik ematen ez dutenak. Hala gertatzen denean, entitatearen aurrekontuetan jaso beharko dira diferentzia estaltzeko behar diren zuzkidurak, halakorik badago behintzat.

Hori gertatzen da akordio honen bidez ezartzen diren prezio publikoen kasuan. Onura publikoko arrazoiak daude jardueren kostuak estaltzeko ordaindu beharko litzatekeena baino prezioa baxuagoa eskatzeko eta aldea udal aurrekontuan kargura estaliko da.

* Erregulazioa eta tarifen zenbatekoak.

1. artikulua. Xedea.

Akordio honen helburua hornidura elektrikoa kargatzeko guneak erabiltzen dituztenek ordaindu beharko dituzten prezio publikoak ezartzea da.

2. artikulua. Ordaintzera behartuak.

Hornidura elektrikoa kargatzeko guneak erabiltzen dituztenek ordaindu beharko dituzte prezio publikoak.

3. artikulua. Sortzapena.

Prezio publikoak sortuko dira hornidura elektrikoa kargatzeko puntuak erabiltzen direnean.

4. artikulua. Zenbatekoa.

Prezio publikoak I. eranskinean ezartzen dira.

5. artikulua. Administrazioa eta Kobrantza.

Prezio horien kobrantza zerbitzua kudeatzen duen enpresa esleipendunari dagokio, baina biltzen den zenbatekoa Udalarentzat izango da.

Amaierako xedapena.

Udal akordio hau 2025eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

I. ERANSKINA. Elektrizitatea kargatzeko puntuak erabiltzeagatiko prezio publikoak

Prezioek BEZ barne hartzen dute.

Hornidura elektrikoaren prezio publikoa karga-guneetan: 0,42 €/ kWh.